

Zazpi urkatuak



Zazpi urkatuak

Jatorrizko izenburua: *Rasskaz o semi poveeshennikh*

Egilea: *L.N. Andreiev*

Itzultzailea: *Jose Morales Belda*

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: *Alberdania&Elkar*

MIKEL GARMENDIA

Hiru kontakizun laburrek osatzen dute Jose Morales-ek euskarara ekarri digun liburu honek: liburuaren izenburu bera duena (*Zazpi urkatuak*), *Ilunpeak* eta *Espektroak*. Hirurak ala hirurak estilo berean idatziak, aise antzematen zaio hiruretan Andreieven "musikari": idazkera groteskoa, espresionismotik eta errealismotik tiraka egina, korapilatsua eta aldi berean zehatza, hasieratik harrapatzen du irakurlea. Txejov-i kasu eginez gero zatika eta atseden txikiak eginez irakurtzekoa, honela baitzioen: "Haren bi orrialde irakurri eta paseotxo bat egitea onena, pare bat orduz aire freskoa hartzeko". Errusiar literaturako dekadentziaren ordezkari nabarmenetakoa dugu Andreiev, desesperoak jotako idazlea, lupa batekin ikusaraziko dizkigu pertsonak –era guztietakoak- barrutik. Kontzientzia, existentzia, ongia eta gaizkia, harrotasuna... etengabe ageriko zaizkigu alde guztietatik aztertuak balore horiek (hortxe Schopenhauer, Nietzsche eta Tolstoiren oihartzunak).

Narratzeko moduari dagokionez, eleberri klasikoan tankeran eginak, hirugarren pertsonan ari zaigun narratzaile orojakilea dugularik kontalari, tartekatutako elkarrizketek kontakizuna arintzen dutelarik. Badu, halere, egiturari dagokionez, bitxitasun edo berrikuntzarik. Pertsonaia bat (ministroa) bere buruarekin solasean ari delarik, isiltasuna deituko dio solaskideari:

"-Ezer ez- erantzun zuen isiltasunak-. Ezer ez."

Berrikuntza edo kontaketa modernoaren adierazletzar hartzekoa dugu, baita ere, amaiera irekiak egitearena, *Ilunpeak* eta *Espektroak* kontakizunetan batez ere. Eta beste hainbeste esan dezakegu *Espektroak* kontakizunaren argumentuari bagagozkio: kontakizun horretan ez dago tramarik, psikiatriko bateko pertsonaien arteko harremana, pertsonaien karakterizazio bikaina, horixe du funtsa kontakizunak. Famatuena *Zazpi urkatuak* izanik ere, niri, aukeran, *Espektroak* da gehien gustatu zaidana. Beste biek badute, halere, aparteko interes bat borroka armatuaren, ekintzaileen eta mundu horri guztiari egiten dion azterketa sakon bezain kupidagabeari. Alde horretatik ondo estimatuko du kontakizun horien irakurketa gai horrekiko kezka duenak.

Hiru egoera gogor, hiru egoera ertzeko: urkatuak izateko prestatzen ari diren bost iraultzaile anarkista eta bi gaizkile arrunt, ekintzaile bat prostituta baten etxean babesturik poliziarengandik ihesi eta psikiatriko bateko eguneroko bizitza barrutik. Nola bizi ditu egoera horiek bakoitzak? Zere sentitzen dute ertzeko egoeretan? Zer kontraesan datozkie burura? Zer balio du edo ba al du baliorik hizkuntzak halako egoeretan? Hori guztia eta gehiago aurkituko dugu kontakizun hauetan, Andreievek modu gordin kupidagabe eta zorrotzean emana.

Bat egin du zorrotasun eta zehaztasun horretan Jose Morales itzultzaileak Andreievekin, eta pertsonak, egoerak, harremanak... barru-barrutik aztertzeko Andreievek erabilitako lupa hura euskaraz erabiltzeko aukera eman digu. Eta erabiltzeko ez ezik, baita gozamina hartzekoa ere.